Osakidetza



JOSKINTZAKO OFIZIALA

GALDERAK

1.- Gaur egun, zein hiru teknologia erabiltzen dira ebaketa-atalean?

a) Eskuzko ebaketa, laser bidezko ebaketa eta ur-presio bidezko ebaketa.
b) Artazi bidezko ebaketa, kuter bidezko ebaketa eta trokel bidezko ebaketa.
c) Ohiko ebaketa, presio bidezko ebaketa eta ebaketa informatizatua.
d) Ohiko ebaketa, ebaketa automatizatua eta ebaketa robotikoa.

2.- Oihalak zabaltzen diren mahaietan, zertarako erabiltzen da aire-korrontea beheranzko norabide bertikalean?

a) Oihal-multzoa trinkotzeko.
b) Ehuna azkar lehortzeko.
c) Oihal-multzoa ahalegin gutxirekin mugitzeko.
d) Oihalak azkar hozteko.

3.- Zein lodieretarako gomendatzen da diskoa erabilita eskuz ebakitzeko makina?

a) Lodiera ertainetarako.
b) Lodiera handietarako.
c) Lodiera txikietarako.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

4.- Zinta bidezko ebaketan, zein da metalezko zumitz zorrotzaren gutxi gorabeherako zabalera?

a) Zentimetro 1.
b) 0,5 cm.
c) 2 cm.
d) 5 mm.

5.- Presio bidezko ebaketa-sistemak zein hiru ebaketa modu eskaintzen ditu trokelaketa-kontzepzio desberdinen arabera?

a) Diskoa, hortza eta laserra.
b) Pieza soltea, markaketa osoa eta oihal soltea.
c) Blokea, lamina eta biribilkia.
d) Eskuzkoa, erdi automatikoa eta automatikoa.

6.- Laser izpi bidezko ebaketan, zein zabalera dauka lortzen den ebaketa-lerroak?

a) 0,10 - 0,20 mm.
b) 0,25 - 0,60 mm.
c) Zehazki, mm 1.
d) 0,7 - 0,9 mm.

7.- Ur-txorrota bidezko ebaketan, nolakoa da ur-kontsumoa?

a) Oso altua.
b) Ertaina.
c) Ez oso esanguratsua.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

8.- Makinaz jostean, hariaren tentsioa ondo erregulatuta egon behar da. Zer gertatzen da goiko haria tenkatuegi badago?

a) Zimurrak eta puntada oso hauskorrak sortzen dira.
b) Orratza berehala apurtzen da.
c) Jostura ahul eta mengela sortzen da.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

9.- Zein da kutunaren egitekoa?

a) Harilak modu antolatuan gordetzea.
b) Orratzak beti eskura izatea.
c) Atzamarrak babestea orratzari oihal lodietan barrena bultza egitean.
d) Frikzio bidez, artaziak kutunaren betegarrian zorroztea.

10.- Josteko artazien lodierari erreparatuta, zein zenbaki daukate artazi finenek?

a) 1.
b) 5.
c) 10.
d) 12.

11.- Oihal bat, berez, gurutzatutako hariz osatzen da. Zein da irazki-haria?

a) Jostean zabaletara pasatzen dena.
b) Jostean luzetara zabaltzen dena.
c) 45 gradura josten dena.
d) Brodatzeko haria.

12.- Ehun-loturen definizioan, zer da “noranzkoa”?

a) Sargaren norabide diagonala.

b) Zirpiltzen ez den ehunaren ertza.
c) Lagin baten gutxieneko lotura-puntuen kopurua.
d) Zentimetro karratu bakoitzeko harien kopurua.

13.- Zelan bereizten dira bisualki "sarga" loturak?

a) Xake-taula baten antza daukate.
b) Gainaldean distiratsuak dira, eta atzealdean, berriz, mateak.
c) Ehuna zeharkatzen duten barnesartze-lerroen bidez.
d) Gainaldean mateak dira, eta atzealdean, berriz, distiratsuak.

14.- Tafeta loturen aldean, zein bereizgarri daukate sarga loturek?

a) Sarga loturak zurrunagoak eta lakarragoak dira.
b) Sarga loturek erorketa hobea dute, eta leunagoak eta beroagoak dira.
c) Sarga loturak ekoiztea merkeagoa da.
d) Sarga loturak beti dira zuriak.

15.- Oihaleko harien kolorea aukeratzean, zein irizpide jarraitu behar da?

a) Harien kolorea oihalak duen berbera izan behar da.
b) Harien kolorea oihalak duena baino apur bat argiagoa izan behar da.
c) Harien kolorea oihalak duen kolorea baino apur bat ilunagoa izan behar da.
d) Harien kolorea oihalak duen kolorea baino apur bat distiratsuagoa izan behar da.

16.- Zein lan motarako da "oso egokia" kotoizko haria, bere malgutasun handiaren zioz?

a) Ehun lodietan botoiak eta botoi-zuloak josteko.
b) Euskarri arinetan lan delikatuak egiteko.
c) Euskarri astunetan apainketa-josturak egiteko.
d) Kirol eta brikolajeko produktuetarako.

17.- Ehun baten "fintasunari" lotuta "20 tex" dituzten hariak aurkitzen baditugu, zein informazio-mota ondorioztatu dezakegu titulazio-sistema unibertsalaren arabera?

a) Zuntzaren diametroa 20 milimetrokoa da.
b) Hariak trakzioarekiko duen erresistentzia 20 kg-koa da milimetro karratuko.
c) Hari horren 1.000 metrok 20 gramo pisatzen dute.
d) Haria bere jatorrizko luzera halako 20 luzatu daiteke.

18.- Zein harreman dago "Uster irregulartasun-indizearen" eta ehun-materialaren balioaren artean?

a) Zenbat eta altuagoa Uster irregulartasun-indizea, orduan eta baliotsuagoa materiala, bere ehundura baldarrari esker.
b) Materialaren balioa ez da Uster irregulartasun-indizearen araberakoa, baizik eta kolorearen eta malgutasunaren araberakoa.
c) Zenbat eta baxuagoa Uster irregulartasun-indizea, orduan eta baliotsuagoa materiala.
d) Uster irregulartasun-indizea beti egon behar da % 65ean materiala kalitate altukotzat jo dadin.

19.- Badago prozesu bat zuntzen "botere iragazlea" aprobetxatu eta, hartara, feltroa lortu ahal izateko iruterik eta ehuntzerik gabe. Zelan deitzen da prozesu hori?

a) Fotonikoa.
b) Errekuperazio elastikoa.
c) Batanatua.
d) Titulazio zuzena.

20.- Zetari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Kapuluko hariek guztira 3500-4500 metroko luzera dute, baina 500-700 metro soilik harilkatzen dira lehen mailako kalitateko zeta osatzeko.
b) Zeta beroaren eta elektrizitatearen eroale bikaina da, fibroina asko du eta.
c) Alkaliak (hala nola soda eta potasa erregarria) beharrezkoak dira zeta zuritzeko bere egitura kaltetu gabe.
d) Zeta-zuntzak erresistentzia baxua eta elastikotasun gutxi dauka.

21.- Kontuan hartuta polipropileno-, poliuretano- eta fluoretileno-zuntzen ezaugarriak, adierazi baieztapen zuzena:

a) "Teflón" poliuretano-zuntzen marka ezagun bat da. Kortse-jantzietan elastikotasun izugarria du.
b) "Merklón" poliuretano-zuntzen marka ezagunena da. Zuntz horiek tapizgintzan, produktu industrialetan eta laneko jantzietan erabiltzen dira.
c) Poliuretano-zuntzek elastikotasun baxua dute, hidrokarburoetatik lortzen direlako; horixe da zuntz horien ezaugarririk garrantzitsuena.
d) Lycra eta Vyrene markak fluoretileno-zuntzen taldekoak dira.

22.- Ohiko diseinu-sistema batean, nola egiten dira patroiak?

a) Patroiak egiteko software espezializatu bat erabiltzen da.
b) Zuzenean egiten dira eskuz marraztutako paperezko formatu baten gainean.
c) Errealitate birtuala, areagotua edo mistoa erabiltzen da, paper hektografikoa baliatuta.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

23.- Patroiak egiteko ohiko sistemaren aldean, zein aukera eskaintzen ditu sistema informatikoak?

a) Patroiak egiteko sistema informatikoak aukera ematen du patroi-eredua diseinatzeko; horretarako, programak eskatzen dituen parametroak sartzen ditu.
b) Ez dago alderik; izan ere, oraingoz ez da garatu software informatikorik parametro zehatzak sartuz patroi bat diseinatzen duenik.
c) Patroiak egiteko sistema informatikoan ez da informazio alfanumerikoa sartu behar, programak sortzen duelako.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

24.- Zeintzuk dira markaketa bat egitearen helburuak?

a) Ehunean ahalik eta gasturik txikiena egitea.
b) Alferrik galtzen den materialaren ehunekoa kontrolatzea.
c) Ebakitzaileari lana erraztea, ebaketa-denborak murriztuta.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

25.- Zergatik gehitu behar zaizkio lau zentimetro inguru bularraldearen neurriari?

a) Beti gehituko dira lau zentimetro neurketa-akatsak zuzentzeko.
b) Jantzia zabal gera dadin.
c) Ehunaren elastikotasunaren arabera, azken jantziaren tamaina murrizteko.
d) Patroiaren erdia soilik egiteko eta, ondoren, hura kopiatu ahal izateko.

26.- Jarraian adierazten diren faktoreetatik, zeinek EZ du eragiten jantzi bat egiteko behar den oihal kopuruan?

a) Ehun-gaiak duen estanpatu-motak.
b) Egin nahi den modeloak.
c) Patroiaren dimentsioek.
d) Erabiliko den josteko makinak.

27.- Ohiko metodoan, zein da modurik onena zenbat oihal behar den kalkulatzeko?

a) Probatzaile birtual bat.
b) Mahaian modeloko patroi guztiak jartzea, bata bestearen ondoan, zabalik.
c) Patroiak mozteko ez da beharrezkoa oihala neurtzea.
d) Zenbat oihal erabili behar den kalkulatzeko, onena software espezializatu bat erabiltzea da.

28.- Adierazi zein abantaila dituen markaketa-sistema informatikoak:

a) Prototipoak egiten laguntzen du, eragiketa horrek ehun gutxi kontsumitzen duelako; izan ere, identifikazio-seinaleak askatasunez aldatzeko aukera ematen du.
b) Jantziak automatikoki josten laguntzen du, eta markagailuaren erabilera ezabatzen du.

c) Aukera ematen du zenbat ehun aprobetxatu den jakiteko, markaketa plotterrean erreproduzitzeko eta ebaketa-burura bidaltzeko.
d) Aukera ematen du plotterra kalibratzeko eta, hala, jantzien azken akaberan kalitatea irabazteko.

29.- Zein faktorek baldintzatzen dute patroien banaketa markaketa bat trazatzean?

a) Ebakiko den materialak zein ezaugarri dituen, ilerik duen edo distirarik duen.
b) Zein ebaketa-sistema erabiliko den.
c) Patroien tamaina eta ebaki beharreko neurri kopurua.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

30.- Zein paper mota erabili daiteke markaketa bat eskuz erreproduzitzean?

a) Krepe papera, markaketa hobeto ikusteko.
b) Paper heliografiko termoitsaskorra.
c) Landare-papera, gaitasun altua duelako prozesu horretan isurtzen den beroari aurre egiteko.
d) Kruft papera, erresistentzia altua duelako.

31.- Gorputzaren neurriak hartzean, zenbait puntutan beharrezkoa da zinta metrikoa tenkatuta egotea. Zergatik?

a) Jantzia nasai eta eroso gera dadin.
b) Jantzia gorputzera egokituta eta eutsita gera dadin.
c) Patroia ondo egiten bada, ez da garrantzitsua nola hartzen diren neurriak.
d) Oihal gutxiago kontsumitzeko.

32.- Nondik neurtu behar da lepo ingurua?

a) Lepoaren zatirik altuenetik, barailatik hurbil.
b) Zatirik baxuenetik, sorbaldekin bat egiten duen lekuan.
c) Albo batetik neurtuko dugu zein distantzia dagoen lepoaren behealdetik goialdera.
d) Altueraren erditik, jantzia ez dadin oso estu geratu.

33.- Zein da paperik egokiena patroiak eskuz trazatzeko?

a) Koloretako paperak, patroi desberdinak erraz identifikatzeko.
b) Paper termikoa, erraz apurtzen ez dena.
c) Paper zuria eta gardena, diseinua kalkatu ahal izateko.
d) Transferentziako ikatz-papera.



34.- Zein da prakaren tiroa neurtzeko modu egokia?

a) Zinta metrikoa gerrian zentratuta jarri, zilborraren azpian, hanketatik pasatu, eta jaitsi bizkarraren erdiraino, gerriaren parean.
b) Zinta metrikoa gerrian zentratuta jarri, zilborraren gainean, hanketatik pasatu eta igo bizkarraren erdiraino, gerriaren parean.
c) Zinta metrikoa gerriaren parean jarri, eta aldakaren atzetik pasatu, eman nahi zaion altueraraino.
d) Hankaren kanpoko luzera neurtu, eta hankartearen luzera kendu.

35.- Zer da markaketa baten azterketa edo errendimendua?

a) Amaituta dagoen jantzi batean diseinu apaingarriak marraztea.
b) Jantzi baten patroiak identifikazio-seinaleen arabera banatzea, ehunaren errendimendua ahalik eta handiena izan dadin.
c) Ehuna ebakitzea, bere dimentsioak kontuan hartu gabe eta alferrik galduko denari lehentasuna emanez.
d) Zehatz-mehatz kalkulatzea eredua ekoizteak benetan zenbat balio duen, eta, horretarako, lehengaia, eskulana eta fabrikazio-gastuak banakatzea.

36.- Zertarako mozten da oihala hariaren norabidean edo hariaren norabidearen kontra?

a) Ehunean elastikotasun gehiago lortzeko.
b) Oihal gehiago edo gutxiago aurrezteko, beharren arabera.
c) Ehunaren kolorea aldatzeko.
d) Oihalaren lodiera handitzeko.

37.- Oihalezko pieza bat zeharka moztean, zein ezaugarri lortzen da?

a) Distira.
b) Erresistentzia.
c) Elastikotasuna
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

38.- Patroiak eskuz jartzeko ohiko metodoak zein desabantaila dauka?

a) Hondarrak guztiz ezabatzen ditu.
b) Ez du luzera osoa neurtzen uzten.
c) Parpaila desegokien ondorioz, txatalak sortzen ditu.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

39.- Oihalezko piezak ebakitakoan, errepasatzeaz gain zer egin behar da joskura errazago manipulatu eta lantzeko?

a) Piezei zenbakia jarri, paketeak identifikatu eta paketeetan sartu.

b) Piezak lisatu, tolesdurarik izan ez dezaten.
c) Tamainen arabera jarri.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

40.- Zein da tenperaturaren eginkizuna artehunen termofinkatze-prozesuan?

a) Erretxina jarri baino lehen, oihala hoztea.
b) Biguntzea eta erretxina mugi dadin ahalbidetzea.
c) Oihala uzkurtzea.
d) Ehuna gogortzea.

41.- Zergatik aplikatzen da presioa artehunen termofinkatze-prozesuan?

a) Erretxina azkar hozteko.
b) Bigundutako erretxina oinarrizko oihalean sarrarazteko.
c) Oinarrizko oihalaren tamaina handitzeko.
d) Oinarrizko oihalean hezetasuna ezabatzeko.

42.- Artehunen termofinkatze-prozesuan, zein helburu dauka hozteak?

a) Oihalaren egitura berria solidotzea eta egonkortzea.
b) Erretxinaren jariakortasuna areagotzea.
c) Aplikatutako presioa murriztea.
d) Oihala berriz biguntzea.

43.- Artehun termoitsaskorretan erretxina sintetiko termoplastikoak erabiltzen dira. Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Erretxinaren fusio-tenperatura kanpoko ehun-gaiaren kolorea aldatzen den tenperaturaren gainetik egon behar da, eta balio jakin bat lortu behar du ehun-gaiari ondo itsasteko.
b) Batzuetan, beharrezkoa da ehun-gaiaren fusio-tenperatura gainditzea ondo itsas dadin.
c) Ez da beharrezkoa erretxinaren fusio-tenperatura egokia lortzea.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

44.- Sakongrabatu bidezko prozeduran, nola berotzen da oihala?

a) Berotutako altzairuzko zilindroen ingurutik pasatuta.
b) Soilik aire beroaren bidez.
c) Ur berotan sartuta.
d) Izpi ultramoreen bidez.

45.- Zer egiten du hauts termoplastikoak sakongrabatu bidezko prozeduran?

a) Oihalaren azaleran lurruntzen da.



b) Artehun beroaren aurka zanpatu, eta azaleraren aurka urtzen da.
c) Oihala estaltzen du, azaleran mintz bat sortuz, urtu gabe.
d) Kimikoki erreakzionatzen du oihalarekin, hura tindatzeko.

46.- Pasta puntu bidezko prozeduran, nola banatzen da itsasgarri akuosoa?

a) Errasketa huts batekin ponpatzen da bahe-txantiloi birakari zulatuaren barrualderantz.
b) Aire konprimatuarekin ihinztatzen da txantiloi birakari zulatuaren kanpoalderantz.
c) Urarekin nahasten da, eta aske erortzen uzten da.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

47.- Zein tenperatu behar du itsasgarriak pasta puntu bidezko prozeduran lehortzeko?

a) 100-120 °C.
b) 150-170 °C.
c) 200-220 °C.
d) Soilik giro-tenperatura.

48.- Zein ehun motatan erabiltzen da pasta puntu bidezko estalkia?

a) Kotoian, lihoan eta tafetan.
b) Poliamidan, kotoian eta artilean.
c) Soilik ehun sintetikoetan.
d) Zetazko ehunetan eta belusan soilik.

49.- Zelakoa da jantzietan aplikatzen den prozedura, aldi berean termofinkatze-eragiketak dituena?

a) Etengabea; erretilu kopurua eta lekualdatzeko mugimendua uztartzen ditu.
b) Erdi etengabea; erretilu kopurua eta lekualdatzeko mugimendua edo jarduera-denbora uztartzen ditu.
c) Eskuzkoa; ez da erretilurik ez karruselik erabiltzen.
d) Erdi automatikoa; lekualdatzeko mugimenduak prentsa hidrauliko bidez egiten dira.

50.- Zein ezaugarri komun dituzte erretilu irristagarriko prentsak, karrusel-prentsak eta tarteka mugitutako zintaren prentsak?

a) Pasta bidez sakongrabatuzko eragiketak egiten dituzte.
b) Aldi bereko termofinkatze-eragiketak egiten dituzte.
c) Sekuentzialki termofinkatze-eragiketak egiten dituzte.
d) Lurrun bidez soilik funtzionatzen dute.

51.- Aukera hauetako zein EZ da aldi bereko termofinkatze-eragiketak dituen prentsa-prozesu bat?

a) Karrusel-prentsa.
b) Erretilu irristagarriko prentsa.
c) Tarteka mugitutako zintaren prentsa.
d) Eskuzko prentsa hidraulikoa.

52.- Zein sistema erabiltzen da materialak garraiatu eta termofinkatze-makinetan posizio egokian mantentzeko?

a) Arrabol-sistema, amaierarik gabeko hiru zintaz osatua: behekoa, goikoa eta tartekoa.
b) Garraio-sistema, amaierarik gabeko bi zintaz osatua: behekoa garraiorako eta goikoa posizioa ziurtatzeko.
c) Convoy-sistema, eskuzko bi erretilu irristagarrik osatua.
d) Arrabol-sistema, karrusel-prentsekin konbinatua.

53.- Adierazi zein den forruaren egitekoa jaka, gona edo beroki lodietan.

a) Ehun-gaia gorputzera itsas dadin saihestea.
b) Azala ehun-zuntz jakin batzuk ukitzean mindu dadin saihestea.
c) Zuntzak erabileraren poderioz desitxuratu eta hondatu daitezen saihestea.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

54.- Eragiketa hauetatik zein EZ dira ebaketa ostean materiala prestatzeko eskuzko lanen barruan sartzen?

a) Ebakitako piezak birpasatzea.
b) Piezei zenbakia jartzea.
c) Presioa kontrolatzea.
d) Paketeak identifikatzea.

55.- Termofinkatze-prozesuan, zein osagaik bermatzen du artehunaren eta ehunaren artean eratutako egitura berria behin betiko egonkortuko dela?

a) Hozteak.
b) Denborak.
c) Presioak.
d) Tenperaturak.

56.- Erretxinarekin lotutako zein faktorek dauka eragin zuzena ehun-gaian sartzeko gaitasunean?

a) Tailerraren giro-tenperaturak.
b) Biskositateak.
c) Ereduaren neurri kopuruak.

d) a), b) eta c) zuzenak dira.

57.- Ikuspegi funtzionaletik, zein da oinarrizko aldea ehun arineko forruaren eta ehun lodiko forruaren artean?

a) Ehun lodietan, forruak gardentasunak saihesten ditu eta gorputza jartzen du; aldiz, ehun arinetan, irristatzen laguntzen du eta azala babesten du.
b) Ehun arinetan, forruak gardentasuna eta gorputza jartzen ditu; aldiz, ehun lodietan, irristatzea saihesten du eta azala babesten du.
c) Ehun arinetan, forruak gardentasunak saihesten ditu eta gorputza jartzen du; aldiz, ehun lodietan, irristatzen laguntzen du eta azala babesten du.
d) Ehun lodietan, forruak gardentasuna eta gorputza jartzen ditu; aldiz, ehun arinetan, irristatzea saihesten du eta azala babesten du.

58.- Forruak zein elementu izan behar ditu jantziaren zabaltasuna eta mugimendua errespetatzeko?

a) Jostura-marjina zabalak eta indartuak.
b) Akabera ikusezinak eta artehun elastikoak.
c) Beharrezko pintzak, izurrak eta bolumenak.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

59.- Azpilduraren zabalera nola aldatzen da oihal motaren arabera?

a) Beti da berdina, oihal mota edozein izanda ere.
b) Estua da oihal gardenetan eta apur bat zabalagoa gainerako oihaletan.
c) Zabalagoa da oihal finetan eta estuagoa oihal lodietan.
d) Jantziaren luzeraren araberakoa da soilik.

60.- Zein alde dago bistan dagoen azpildura baten edo ezkutuan dagoen azpildura baten artean?

a) Bistan dagoen azpildura puntada gordean josten da; ezkutuan dagoen azpilduran, ertzak jostura edo puntada luzez errematatuta daude.
b) Ezkutuan dagoen azpildura puntada gordean josten da; bistan dagoen azpilduran, ertzak jostura edo puntada luzez errematatuta daude.
c) Bistan dagoen azpildura praketan egiten da soilik; ezkutuan dagoena, gonetan.
d) Ez dago alderik; berdin josten dira.

61.- Oro har, zein eragiketa egiten da ebakitako piezak paketeetan bildu aurretik?

a) Garbitu eta lisatu.
b) Artehunak termofinkatu eta piezen ertzak puntada luzez josi.
c) Etiketak jarri eta poltsetan sartu.
d) Pasaratu eta errepasatu.



62.- Oihaletako piezak ebakitakoan, jostura manipulatu eta lantzen laguntzeko, aukera hauetako zein EZ da aipatzen materiala prestatzeko eskuz egin beharreko lanen artean?

a) Ebakitako piezak birpasatzea.
b) Piezei zenbakia jartzea.
c) Piezak lisatzea.
d) Piezak paketean sartzea.

63.- Ehun-akats bat badago jantziaren zati kritiko batean, zer egin behar da?

a) Brodatu batekin ezkutatu.
b) Pieza baztertu.
c) Merkealdietan saldu.
d) Txikia bada, ez da ezer gertatzen.

64.- Zein kasutan zenbakitu behar dira piezak?

a) Laser bidezko ebaketaz lan egitean.
b) Pakete bateratu batekin lan egitean.
c) Pakete anizkun batekin lan egitean.
d) Oihalak estanpatuak direnean.

65.- Zein datu EZ da jotzen beharrezkotzat pakete sinple bat identifikatzeko?

a) Modeloa.
b) Neurria.
c) Bezeroa.
d) Kolorea.

66.- Pakete batean egin beharreko faseak adierazten dituen tiket-orri bakoitzak zein datu jaso behar ditu?

a) Jatorria, helmuga, data, ordua eta sinadura.
b) Unitate kopurua, modeloa, fasea edo eragiketa, eta pakete-zenbakia.
c) Jantziak, prezioa, bezeroa eta beherapena.
d) Oihala, haria, orratza, osagarriak eta gehigarriak.

67.- Zein helburu tekniko dauka ebakitako piezak zenbakitzeak?

a) Guztira zenbat pieza ebaki diren jakitea.
b) Langileari erraztasunak jartzea zenbakitutako pieza bakoitza ordaintzeko.
c) Tonuan aldaketak saihestea, mahai gaineko oihal-geruza bereko piezak batuz.
d) Jantziaren modeloa eta neurria identifikatzea.

68.- Zein da “100 motako” puntaden ezaugarria?

a) Orratz-haria eta mozorkako haria gurutzatu egiten dira.
b) Hari bakoitza bere baitan gurutzatzen da.
c) Ehunaren ertza estaltzen duen puntada.
d) Eskuz egindako puntada ikusezina.

69.- Zer da, zehazki, “ertza egiteko sistema sinplea”, joskura moten definizioen arabera?

a) Bere baitan bi aldiz tolestuta dagoen ertzari eustea.
b) Bi pieza lotzea gainjarritako ertzen gainean.
c) Bere baitan behin tolestuta dagoen ertzari eustea, zentimetro jakin batzuk gainditzen ez dituen zabaleraren gainean.
d) Zeharkako zinta baten bidez pieza bat babestea.

70.- Puntada bat osatu daiteke:

a) Materialaren presentziarik gabe.
b) Materialaren barruan.
c) Materialaren bidez.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

71.- Joskintzan, zer da “izurrak egitea”?

a) Profil zuzen edo makur itxiarekin lotzea.
b) Ertzak kate bidez babestea.
c) Josturarekiko perpendikularrak diren ondulazio txikien serieko josturari eustea.
d) Oihal baten haustura jostea, piezak puntada ordenatuen bidez lotuz, lotura disimulatuta gera dadin.

72.- Joskintzan, zein da “albaintzearen” helburu nagusia?

a) Ertzak kate bidez edo puntada luzez babestea.
b) Ertzean edo azaleran 2 pieza mantentzea posizio batean; posizio hori jostura batek finkatuko du behin betiko.
c) Pieza bat edo hainbat babestea (lotu ahala), babestu beharretako ertzetan jarriko den pieza baten bidez.
d) Josturarekiko perpendikularrak diren ondulazio txikien serieko josturari eustea.

73.- Zelan deitzen da “800 motako” puntada?

a) Kate-puntada.
b) Ertzak josteko puntada luzeak.
c) Estaltzeko puntadak.
d) Puntada konposatuak.

74.- Aukera hauetako zein ari da "pasaratzeari" buruz?

a) Josturarekiko perpendikularrak diren ondulazio txikien serieko josturari eustea.
b) 2 pieza edo gehiago lotzea gainjarritako ertzetako baten gainean, profil zuzen edo makur batekin.
c) Oihal baten haustura jostea, piezak puntada ordenatuen bidez lotuz, lotura disimulatuta gera dadin.
d) Bazterki tolestu batek osatzen du; bazterki horrek pieza baten edo gehiagoren bazterra estaltzen du, eta hari lotzen zaio, puntada-ilara baten edo gehiagoren bidez.

75.- Zein alde tekniko dago "ertza egiteko sistema sinplearen" eta "ertza egiteko sistema bikoitzaren" artean?

a) Sistema sinplea eskuz egiten da, eta bikoitza, berriz, makinaz.
b) Sistema sinpleak ertz bat bere baitan tolesten du, behin, eta sistema bikoitzak, berriz, bi aldiz tolesten du bere baitan.
c) Sistema sinplea artilezko ehunetan aplikatzen da, eta bikoitza, berriz, zetazko ehunetan.
d) Sistema bikoitzak ertz bat bere baitan tolesten du, behin, eta sistema sinpleak, berriz, bi aldiz tolesten du bere baitan.

76.- Zein da "jostura" eta "atzera-puntada" kontzeptuen arteko oinarrizko aldea?

a) Jostura beti egiten da makinaz; atzera-puntada, berriz, beti egiten da eskuz.
b) Josturak material-pieza bi edo gehiago lotzen ditu; atzera-puntada, berriz, apaintzeko, ertzei akabera emateko edo jantziko zatiak indartzeko erabiltzen da.
c) Josturak sei taldetan banatzen dira; atzera-puntadak, berriz, bi taldetan banatzen dira (zuzenak eta makurrak).
d) Jostura tolestutako materialean aplikatzen da; atzera-puntada, berriz, tolestu gabeko materialean.

77.- Zein puntada motari buruz ari da definizio hau? "Moztutako piezen ertzak babesteko erabiltzen da, babes-jostura hori gabe hariak aise aterako liratekeen kasuetan".

a) 300 mota.
b) 400 mota.
c) 500 mota.
d) 600 mota.

78.- Adierazi zein lan-teknikak egiten duen bat definizio honekin: "2 pieza edo gehiago lotzea gainjarritako ertzetako baten gainean, profil zuzen edo makur batekin".

a) Lotzea.
b) Izurtzea.



c) Tolesak egitea.
d) Azpiltzea.

79.- Puntada bat egiteko zein fasetan askatzen da orratzaren hariaren bukle puntada eratzeko beheko mekanismotik, beheko haria inguratu ondoren?

a) Doikuntza-fasean.
b) Konformazio-fasean.
c) Askatze-fasean.
d) Begiztatze-fasean.

80.- Adierazpen hauetatik, zein EZ da zuzena?

a) Gainjarritako josturetan, ohikoa da material-piezak bata bestearen gainean eta puntada-ilara baten edo gehiagoren bidez lotuta egotea.
b) Gainezarritako josturak oilar-bazterrek gainjartzen dituzte, eta puntada-ilara batez edo gehiagoz lotuta daude.
c) Apaindurako atzera-puntada materialera txertatu daiteke modu zuzen edo makurrean nahiz apaindurako marrazki bati jarraituz.
d) Jostura lauak bazterki tolestu baten bidez eratzen dira; bazterki horrek pieza baten edo hainbaten oihal-bazterra estaltzen du.

81.- Zeintzuk dira ospitaleko arropak dituen hiru funtzioak?

a) Berotasuna, estetika eta garbiketa.
b) Berotasuna, babesa eta intimitatea.
c) Babesa, identifikazioa eta erosotasuna.
d) Higienea, leuntasuna eta erresistentzia.

82.- Zein arazo nagusi dauka koloretako arropa tratatzeak?

a) Azkarrago zikintzen da.
b) Azalarekin kontaktuan lakarra da.
c) Desinfekzio-programak aplikatzean, koloregabetu egin daiteke.
d) Fabrikatzeko garestiagoa da.

83.- Disolbatutako zein gatz dira, batez ere, uraren gogortasuna zehazten dutenak?

a) Sodioa eta potasioa.
b) Kaltzioa eta magnesioa.
c) Kloroa eta burdina.
d) Sulfatoak eta nitratoak.

84.- Zer gertatzen da ebakuntza-gelako arropa berdea garbitzean eta desinfektatzean?

a) Bereziki hondatzen da, koloregabetu egiten da, eta porositatea areagotzen du.
b) Hondatu egiten da, etengabe garbituta azkar uzkurtzen delako.
c) Bereziki hondatzen da, kolorea hartzen du, eta porositatea galtzen du.
d) Ezaugarri iragazgaitzak hartzen ditu.

85.- Zein alde dago "tratatutako arroparen" eta "garbitutako arroparen" artean ekoizpena kalkulatzean?

a) Tratatutako arropa da garbitegian sartzen den arropa zikina; garbitutako arropa da garbitu eta higienizatu egiten dena.
b) Garbitutako arropa da garbitegian sartzen den arropa zikina; tratatutako arropa da garbitu eta higienizatu egiten dena.
c) Tratatutako arropa behin baino gehiagotan garbitzen da; garbitutako arropak pisu gehiago dauka, hezetasuna duelako.
d) Garbitutako arropan, pisua handiagoa da tratatutakoan baino; izan ere, ohikoa izaten da arropa-poltsaren barruan hainbat objektu egotea.

86.- Konbustio-proban, nola identifikatzen da kotoia?

a) Astiro hartzen du su, eta paper errearen usaina du.
b) Urtu eta bola beltz bat osatzen du.
c) Azkar hartzen du su, eta errauts zuriak uzten ditu.
d) Ez du su hartzen; belztu egiten da, besterik ez.

87.- Zein animaliatik dator mohairra?

a) Ardi merinotik.
b) Angorako untxitik.
c) Ahuntzetik.
d) Zeta-harretik.

88.- Jantzi batek klorhexidinazko orbanen bat badu, zergatik ez dira erabili behar produktu kloratuak (esaterako, lixiba)?

a) Orbana desagertu arren, ehuna hautsi egiten delako.
b) Orbana horixka bihurtzen delako eta ez delako desagertzen.
c) Klorhexidinak erreakzio bortitza egiten duelako kloroarekin.
d) Toxikoa bihurtzen delako.

89.- Zer da, zehazki, "ilajetik ateratako artilea"?

a) Ardi bizidunetatik ateratzen dena udan ardiok mutildu ostean.
b) Oihal berrien hondarrak ebakita lortzen dena.
c) Hildako ardietatik lortzen dena.

d) Zuntz sintetikoekin nahastutako artilea.

90.- Zeta uzkurtzean, karraska berezi bat entzuten da. Zelan deitzen da?

a) Krakana edo zetaren oihua.
b) Errege-karraska.
c) Beldarraren oihua.
d) Zuntz-krakada.

91.- Osatu ezazu kaltetu gabeko kotoiari buruzko esaldi hau: Lehorreko erresistentzia...

a) hezeko erresistentziaren berdina da.
b) hezeko erresistentziaren % 50 baino altuagoa da.
c) hezeko erresistentziaren % 15 baino baxuagoa da.
d) hezeko erresistentziaren bikoitza da.

92.- Zelakoak izan behar dira ospitaleko arroparako erabilitako ehunak, eta zergatik?

a) Ehun erresistenteak, hainbat bider garbitu ondoren egoera onean jarrai dezaten.
b) Leunak, lazturaren bat edukiz gero azala kaltetu dezaketelako.
c) Elastikoak, erosoagoak izan daitezen.
d) Iragazgaitzak, errazago garbitzeko.

93.- Baieztapen hauetako zeinetan deskribatzen da ondo ehun-loturetako bat?

a) Sarga loturak azalera lau eta distiratsua dauka; batez ere, damasko-erako mahai-zapietan erabiltzen da.
b) Tafeta lotura batez ere eskuoihaletan erabiltzen da, bukle xurgatzaileak osatzeko gaitasuna duelako.
c) Krepe lotura lortzeko, hari bat norabide batean eta bi hari beste norabidean gurutzatu behar dira; horrek erresistentzia handia ematen dio ehunari.
d) Lotura kiribila eskuoihalak egiteko erabiltzen da.

94.- Zein da tafeta loturaren ezaugarri nagusia?

a) Azalera ondulatua sortzen du, eta erliebe apaingarria du.
b) Lotura horrek ematen dio erresistentziarik handiena ehunari, eta izara eta zorroetan erabiltzen da.
c) Bluke bidez osatzen da; bukle horiek xurgatze-gaitasuna areagotzen dute. Sukaldeko zapietan erabiltzen da.
d) Azalera bereziki lau eta distiratsua sortzen du.

95.- Zein baieztapenek deskribatzen du ondo sarga lotura?

a) Eskuoihaletan erabili ohi den lotura da, egitura kiribila du eta.
b) Kiribiltze irregularra du ehunaren azaleran.
c) Hari bat zentzu batean eta bi hari bestean gurutzatuz osatzen da.
d) Gainerako oinarrizko loturek baino distira gehiago ematen du.

96.- Satin lotura dela eta, adierazi aukera egokia:

a) Gainerako loturek baino azalera lauagoa eta distiratsuagoa sortzen du.
b) Bukle xurgatzaileak dituzten ehunetan erabiltzen da batez ere.
c) Azalera ondulatua sortzen du, eta ageriko erliebea du.
d) Lotura erresistenteena da harien gurutzatze sinplearen ondorioz.

97.- Krepe loturari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Hariak erregularki gurutzatzean sortzen da, eta distira handia ematen dio ehunari.
b) Ehunaren azaleran kiribilak eta uhinak sortzen ditu, eta mahai-zapietan erabiltzen da.
c) Azalera satinatu eta distiratsu bat sortzen du, satinak bezala, baina zurruntasun handiagoz.
d) Bukle luze eta erregularrak ditu; horiek xurgapena areagotzen dute.

98.- Zer da ehungintza?

a) Ehun-zuntzetan koloreak finkatzeko prozesu kimikoa.
b) Ehun bati aplikatzen zaion azken akabera, bere erresistentzia hobetzeko.
c) Ehun bat lortzeko hari bat edo hainbat batu edo lotzeko prozesu mekanikoa.
d) Jantziak fabrikatu aurretik ebaki eta lantzeko teknika.

99.- Fabrikazio-sistemaren arabera, zein aukerak deskribatzen ditu ehundu gabeko oihalak?

a) Hari perpendikularrek osatutako ehunak dira, eta zapi eta izaretan erabiltzen dira.
b) Presioaren, tenperaturaren eta ehun-zuntzen marruskaduraren bidez egiten dira, eta feltroa lortzen da.
c) Hari bakar bat etengabe gurutzatuz sortzen dira, eta elastikotasun handia ematen dute.
d) Tafeta, sarga edo satin loturekin soilik fabrikatzen dira.

100.- Ehun bat fabrikatzen bada hari bat bere baitan gurutzatuta, zein taldekoa da?

a) Ehundu gabeko oihalak.
b) Feltro industrialak.
c) Ehundegiko oihalak.
d) Puntu-ehuna.

101.- Irazki-haria zergatik izan behar da bilbea baino erresistenteagoa?

a) Ehuna fabrikatzeko prozesuan zehar tortsio gehiago jasaten duelako, eta, beraz, erresistentzia gehiago behar duelako.
b) Ehuna fabrikatzeko prozesuan zehar tortsio gutxiago jasaten duelako, eta, beraz, irazki-haria babestuago dagoelako.
c) Irazki-haria soilik ehun apaingarri eta finetan erabiltzen delako, eta horiek azalera-erresistentzia handiagoa behar dutelako.
d) Bere lodiera beti delako bilbearena baino handiagoa, edozein izanik ere tortsioa eta tentsioa ehuntzean.

102.- Ehun baten dentsitatea, gramajea eta egonkortasun dimentsionala direla eta, adierazi erantzun zuzena:

a) Dentsitateak ehun baten metro karratu baten pisua adierazten du, eta hari kopuruaren araberakoa da.
b) Gramajeak definitzen du garbitu ostean ehuna zenbat uzkurtzen den.
c) Egonkortasun dimentsionalak zehazten du garbitu ostean ehuna zenbat uzkurtzen den.
d) Egonkortasun dimentsionalak neurtzen du zenbat hari dauden ehun baten zentimetro bakoitzean.

103.- Ehundegi batean, non garatzen dira irazkia osatzen duten hariak?

a) Anezkan.
b) Zilindro tolestailean.
c) Irazki-txirriketan.
d) Orrazian.

104.- Zer da gizakiak egindako zuntz ez-zelulosikoen (sintetikoen) bereizgarri?

a) Landareetatik soilik lortzen diren zuntzak dira; ez dago esku-hartze kimikorik.
b) Zuntz horien lehengaiak naturatik datoz, baina gizakiak tratatu ditu.
c) Zuntz horiek kopuru txikietan baino ezin dira ekoitzi.
d) Gizakiak tratatutako zuntzak dira, eta ezin da haien erresistentzia edo distira aldatu.

105.- Zein da poliester-zuntzetan garrantzitsua den bakarra?

a) Polietileno tereftalatoa.
b) Poliakrilonitriloa.
c) Poliamida.
d) a), b) eta c) ez dira zuzenak.

106.- Poliester-zuntzen desabantailei buruzko aukera hauetatik, zein da zuzena?

a) Hezetasunari eusteko gaitasun gutxi dute, eta hotz-sentsazioa sor dezakete.



b) Guztiz xurgatzaileak dira, eta beti eusten diote gorputzaren tenperaturari, hotz-sentsazioa saihestuz.
c) Beren dentsitate arinaren ondorioz, oso merkeak dira, baina ez dira oso erresistenteak garbiketarekiko.
d) Ez dira ez erresistenteak ez egonkorrak garbiketarekiko.

107.- Kontuan hartuta rayonak dituen ezaugarri fisikoak eta zelan jokatzen duen garbitzean eta hezetasuna hartzean, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

a) Rayonaren lehorreko erresistentzia kotoiarena baino % 50 altuagoa da.
b) Lehorreko erresistentzia kotoiarenaren berdina da.
c) Hezeko erresistentzia lehorreko erresistentzia baino % 50 baxuagoa da.
d) Bere egonkortasun altua dela eta, aukera ematen du tenperatura altuetan garbigarri azidoak eta zentrifugoak erabiltzeko.

108.- Azetato-zuntzen ezaugarri fisikoak eta kimikoak aztertuz gero, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

a) Konbustio-proba egitean, azetatoak azkar hartzen du su, ez du hondarrik uzten, eta paper errearen usaina jariatzen du.
b) Azetatoa disolbaezina da azetonan; horrek urraduraren eta tentsioaren aurrean erresistentzia altua ematen dio.
c) Konbustio bidez identifikatzen da, astiro hartzen duelako su, bolatxo beltz bat utziz (atzamarrekin zanpatzeko modukoa), eta gasek ozpin-usaina dutelako.
d) Garbiketa-ezaugarriak oso ezberdinak dira rayon likatsuaren ezaugarriekin alderatuz gero.

109.- Nailonaren zehaztapen teknikoen arabera, haien motei, identifikazioari eta mantenamenduari buruzko baieztapen hauetatik zein da egokia?

a) Bi mota daude, Nailon 6 eta Nailon 6,6. Beren fusio-puntuak ezartzen du aldea: 215 ºC eta 270 ºC, hurrenez hurren.
b) Sugarraren bidez identifikatzean, azkar erretzen da, ozpin-usaina du, eta errauts beltza uzten du.
c) Garbitzeko, produktu oso alkalinoak erabili behar dira, ekintza mekaniko handia behar da, eta lixiba erabiltzea komeni da.
d) Nailona ez da zartatzen baldintza hezeetan berotu arren.

110.- Ehundegiko oihal bat fabrikatzeko prozesuan, zelan deitzen da bilbea sartzeko aparatua?

a) Orrazia.
b) Anezka.
c) Puntada.
d) Pasantea.

111.- Espektrokolorimetroak Hunter Lab eskala erabiltzen du ospitaleko arroparen zuritasuna neurtzeko. Eskala horretan, zer adierazten du "L" balioak?

a) Argitasuna.
b) Gorriaren maila, baldin eta balioa positiboa bada, edo berdearena, negatiboa bada.
c) Horiaren maila, baldin eta balioa positiboa bada, edo urdinarena, negatiboa bada.
d) Zuriaren maila; ASTME313 araua erabiliz neurtzen da.

112.- Jantzigintzako teknikari batek jantzi baten etiketa jarri behar du, baldin eta osaera hau badu: % 42 poliester, % 39 artilea, % 12 kotoia eta% 7 beste zuntz batzuk. Zein da produktu hori izendatzeko modu zuzen eta nahitaezkoa?

a) Aski da adieraztea % 42 dela poliesterra, horixe baita sintetikoen taldeko zuntz nagusia.
b) Adierazi behar dira, gutxienez, ehuneko altuenak dituzten bi zuntzen izenak eta ehunekoak eta, ondoren, gainerakoak, beheranzko ordenan.
c) "Poliester purua" jar daiteke etiketan, zuntz naturalen batura ez delako % 50era iristen.
d) Ez dagoenez zuntzik % 85era iristen denik, produktuaren etiketan nahitaez jarri behar da "beste zuntz batzuk", poliesterrak eta artilea aipatu gabe.

113.- Zein oinarrizko alde dago inkrustazio ez-organikoaren eta inkrustazio organikoaren artean nola eratzen diren aztertuz gero?

a) Ez-organikoa arropa gainean erortzen diren xaboi disolbaezinek osatzen dute; organikoa, aldiz, garbiketan erabilitako garbigarrietatik datozen gatz alkalinoen hondakinek osatzen dute.
b) Inkrustazio ez-organikoa gazitasun gehiegi duten uretatik eratorritako gatzek osatzen dute; inkrustazio organikoa, aldiz, kaltzioarekin eta magnesioarekin erreakzionatzen duten produktuek osatzen dute.
c) Bi inkrustazioek jatorri kimiko berdina dute, eta narriadura goiztiarra maila berdinean eragiten dute; ondorioz, disolbatzaile bidezko errefluxu-prozedura berarekin neurtzen dira.
d) Inkrustazio ez-organikoak arroparen zuritasuna hobetzen du; organikoak, aldiz, elastikotasuna murrizten du.

114.- Uniformearen segurtasun- eta mantentze-ezaugarriei buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Poliesterra gomendatzen da anestesikoak maneiatzen diren arloetarako, porositate baxua duelako.
b) Ebakuntza-gelako arropa, oro har, berdea da; arropa horren bizitza erabilgarria gainerakoena baino luzeagoa da, desinfekzio-prozesu bereziek indartu egiten dutelako.
c) Uniformearen diseinuak saihestu egin behar ditu botoiak, tolesdurak edo zuloak, zikinkeriarik metatu ez dadin; halaber, ez du hezetasuna xurgatu behar.
d) Langileek uniformea erabil dezakete lantokitik kanpo, baldin eta egin beharreko zeregina premiazkoa bada.

115.- Jantziak prestatu, ebaki, josi eta lisatzeko prozesuan, aukera hauetako zein da egokia jostura-atalean?

a) Guztietatik errazena da.
b) Arazo tekniko gehien sortzen ditu, josteko eragiketa mekanizatzearen ondorioz.
c) Ez du langilearen ekintzarik behar.
d) Paketean sartu aurreko azken fasea da.

116.- Zer da "lanpostua"?

a) Josteko makina.
b) Josteko makinak eta langilearen ekintza.
c) Ebakitzeko eta lisatzeko mahaia.
d) Materiala aztertzeko laborategia.

117.- 200 motako puntadak dira:

a) Eskuz egindako puntadak.
b) Kate bakoitzeko puntadak.
c) Ertzak josteko puntada luzeak.
d) Estaltzeko puntadak.

118.- Nola izendatzen dira makinak beren kanpoko formaren arabera, baldin eta lan-planoa taula formakoa edo konkaboa bada?

a) Makina lauak.
b) Hodi-makinak.
c) Zutabe-makinak.
d) Bloke bakarreko makinak.

119.- Zein ezaugarri dute "bloke bakarreko" makinek?

a) Beso oso luzea dute, 25 zentimetrotik gorakoa.
b) Oihalen erdigunean josteko aukera ematen dute.
c) Lan-organoak karter hermetiko batean daude, eta ertzeko josturak soilik ahalbidetzen dira.
d) Lan-planoa zutabearen goiko aldean dago.

120.- Kate-puntadak edo ertzak josteko puntada luzeak egiten dituzten makinek, kakoa beharrean, hauek dituzte:

a) Mozorkak.
b) Ankorak.
c) Arrabolak.
d) Gomazko zintak.



121.- Zein forma izan ohi du “orratz-plantxak”?

a) Zirkulu perfektuaren forma.
b) “D” luzangaren forma.
c) Obaloaren forma.
d) Arrabol horzdunaren forma.

122.- Zein arazo sor daiteke arraste oker batean?

a) Puntada ezberdinak egitea.
b) Uhala berehala haustea.
c) Makina ez piztea.
d) Bolantea higatzea.

123.- Materialak eutsi eta arrastatzeko gunea hiru zatitan bereizten da. Zeintzuk dira?

a) Besoa, oinarria eta euskarria.
b) Goikoa, erdikoa eta behekoa.
c) Pedala, motorra eta burua.
d) Orratza, haria eta oihala.

124.- Zein organok osatzen dute arraste-sistema baten goiko aldea?

a) Hortzek eta kakoak.
b) Plantxa metalikoak.
c) Oihal-prentsak eta orratz-barrak.
d) Gomazko arrabolek.

125.- Zelan deitzen da D-1 arraste bikoitza?

a) Diferentzial bidezko arrastea.
b) Orratz laguntzailearen arrastea.
c) Arraste hirukoitza.
d) Plater bidezko arrastea.

126.- Orratz-plantxan, nolakoa izan behar da orratzak pasatzeko zuloa?

a) Orratzaren eta alakatuaren diametro berdinekoa.
b) Kañaren diametroa baino apur bat altuagoa, goiko ertza zorroztuta, ebaki gabe.
c) Kañaren diametroa baino apur bat altuagoa, goiko ertza alakatuta.
d) Angeluzuzena, hortzak pasa daitezen.

127.- Zer gertatzen da arraste diferentzialean (S-2)?

a) Hortzak bi bloketan zatitzen dira; ondorioz, hainbat efektu lor daitezke, hala nola beheko oihalak luzatu edo tolestea.
b) Beheko aldean dauden hortzek, goiko aldean dagoen orratzak eta goiko aldean dagoen oihal-prentsak aldi berean egiten dute arrastea.
c) Beheko aldean dauden hortzek eta goiko aldean dagoen oihal-prentsak aldi berean egiten dute arrastea.
d) Goiko aldeko orratza arraste-organo bakarra da, eta oihal-prentsa finko dago.

128.- Zein da D-5 arrastearen ezaugarri nagusia?

a) Goiko aldea goma horzdunezko amaierarik gabeko zinta batek osatzen du; zinta hori presioa egiten duen oihal-prentsa bat da.
b) Orratzak eta platerek kokapen eta ibilbide horizontalak dituzte, eta materiala bertikalki sartzen da.
c) Gomazko arrabol bat dago goiko aldean, aldizkako inpultsio propioa duena; arrastea osatzeko funtzioa du.
d) Goiko aldean daude zinta horzduna, oihal-prentsa funtzioa duena, eta garraioa eta orratza; beheko aldean, berriz, hortzak.

129.- Zertarako dira automatak josturan?

a) Langileak ez dezan *in situ* egon behar.
b) Zehaztasun eta abiadura handiagoko eragiketak egiteko.
c) Koipeztatze automatikoa ordezkatzeko.
d) Soilik botoiak josteko.

130.- Makinaren kanpoko formaren araberako sailkapenari jarraikiz, zein luzeratik aurrera jotzen da makina lau bat "beso luzekotzat"?

a) 25 zentimetro baino gutxiago.
b) 25 zentimetroko luzera finkoa.
c) 25 zentimetrotik aurrera.
d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

131.- Zelan deitzen da gehien erabiltzen den makina?

a) Arrunta.
b) Aldizkakoa.
c) Mistoa.
d) Paraleloa.

132.- Puntada egitean, zein da kako edo ankoraren funtzio nagusia?

a) Materiala orratz-plaken kontra eustea.
b) Ehuna zulatzea, haria errazago pasa dadin.



c) Puntua hariaren bukletik sartzea; bluke hori orratzak utziko du.
d) Haritik gora tiratzea, puntada estutzeko.

133.- Zein da oihal-prentsaren oinaren funtzioa?

a) Materiala lekualdatzea, ibilbide eliptiko baten bidez.
b) Orratzeko hariari irristatzen laguntzea.
c) Beheko hariaren harila barrualdean uztea.
d) Ehuna eustea puntada egin bitartean eta josturan zehar.

134.- Eskuzko arrastean (I-1), noiz uzkurtzen du oihal-prentsak materiala?

a) Materialaren ibilbide guztian zehar.
b) Soilik langileak oihal-prentsa altxatzen duenean.
c) Hariaren begizta egiteko orratza sartzen denean.
d) Soilik makinak abiadura gorena hartzen duenean.

135.- Makina baten kanpoko formaren arabera, zein izen daukate lan-planoa alboz duten eta joskurak soilik oihalen ertzean egin ditzaketen makinek?

a) Oinarri lauko makinak.
b) Bloke bakarreko makinak.
c) Zutabe-makinak.
d) Beso-makinak.

136.- Zein da ehungintzaren misio nagusia?

a) Modako arropak diseinatzea eta neurri desberdinetan saltzea biltegi handietan.
b) Ehun-materietatik abiatuta hariak lortzea eta horiekin ehun-gai desberdinak fabrikatzea.
c) Lehengai mineralak ateratzea, industrian erabiltzeko.
d) Ehuna ekoizteko prozesuak erraztuko dituzten makinak sortzea.

137.- Zer da ehun-materia?

a) Edozein zuntz-material, hari bat bihur daitekeena.
b) Edozein material zurrun, barne-egiturak egiteko erabiltzen dena.
c) Edozein material sintetiko, dagoeneko oihal bihurtua.
d) Edozein sustantzia likido, industria-prozesuetan erabilia.

138.- Ondorengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

a) Amiantoa zuntz mineral bat da.
b) Zuntz akrilikoak polimerizazio bidez lortzen dira.
c) Rayona zuntz zelulosiko bat da.



d) a), b) eta c) zuzenak dira.

139.- Zer adierazten du hari edo irun baten izenburuak, eta zein ikur dauka?

a) Hariaren luzera osoa adierazten du, eta bere ikurra litroa da.
b) Zuntz, hari edo irunaren 1.000 metroko pisua adierazten du, gramotan, eta bere ikurra texa da.
c) Materialaren dentsitatea adierazten du, eta bere ikurra m^2 da.
d) Hariaren lodiera adierazten du, milimetrotan, eta bere ikurra mm da.

140.- Zuntz naturalei buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Zuntz naturalen batez besteko luzera 15-500 mm-koa da; zenbat eta luzeagoak izan, balio gehiago dute.
b) Zuntz naturalen batez besteko luzera 10-100 mm-koa da; zenbat eta luzeagoak izan, balio gutxiago dute.
c) Zuntz naturalen batez besteko luzera 15-50 cm-koa da; luzerak ez du balioan eragiten.
d) Zuntz naturalen batez besteko luzera 500-1000 mm-koa da; zenbat eta laburragoak izan, balio gehiago dute.

141.- Zer adierazten du zuntz baten zailtasunak, eta nola adierazten da?

a) Zuntzaren kolorea adierazten du, eta lumenetan adierazten da.
b) Zuntzaren luzera adierazten du, eta metro edo zentimetrotan adierazten da.
c) Hariaren fintasuna adierazten du, eta tex edo milimetrotan adierazten da.
d) Trakzioarekiko erresistentzia adierazten du, eta gr/tex edo kg/mm^2-tan adierazten da.

142.- Zer da zuntz baten higroskopikotasuna?

a) Zuntz batek hezetasun-baldintza jakin batzuetan trakzioarekiko duen erresistentzia da.
b) Zuntz baten fintasuna da, eta metroko gramotan edo texetan adierazten da.
c) Zuntz-metro batek 20 °C-tan duen xurgatze-gaitasuna da, eta milimetrotan adierazten da; hezetasun erlatiboa % 50ekoa da.
d) Lehorretako 100 zuntz-partek 20 °C-tan xurgatzen duten ur-kopurua da, eta hezetasun erlatiboa % 65ekoa da.

143.- Ehun baten kalitateari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Hari batek Uster indize altua badu, balio handiagoa du, nahiz eta zailtasun baxua izan.
b) Fintasunak eta zailtasunak ez daukate eraginik kalitatean, baldin eta Uster indizea baxua bada.
c) Zenbat eta baxuagoa irregulartasun-indizea, orduan eta baliotsuagoa materiala.

d) Hariaren zailtasuna kolorearen menpe dago; ez Uster indizearen ez fintasunaren menpe.

144.- Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Feltroak irute- eta ehungintza-prozesu tradizionaletatik lortzen dira hezetasun-baldintza jakin batzuetan.
b) Feltroak zuntzak zurratzeko prozesu baten bidez lortzen dira.
c) Feltroak hezetasunik gabe beroa aplikatzen lortzen dira.
d) Feltroak lortzeko, zuntzak batanatze-prozesu batetik pasatzen dira, hezetasun- eta tenperatura-baldintza jakin batzuetan.

145.- Baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena?

a) Animalia-espezie desberdinen ileak batez ere keratinaz eta fibroinaz osatuta daude.
b) Animalia-espezie desberdinen ileak erabili izan dira iruntzeko dituzten baldintza onen zioz.
c) Animalia-espezie desberdinen ileak arditik, gamelutik, llamatik, untxitik edo bisoitik etor daitezke.
d) Animalia-espezie desberdinen ileak batez ere zelulosaz osatuta daude.

146.- Baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Artilea ardiaren ilea da; gainerako animalien kasuan, ilea esaten da.
b) Artilea etxaldeetan hazitako etxeko animalien ilea da; gainerako animalien kasuan, ilea esaten da.
c) Ilea animalia guztien ile luzeena adierazteko erabiltzen da; artilea, berriz, laburrena adierazteko.
d) Ez dago alderik artilearen eta ilearen artean.

147.- Oro har, zein alde dago artile luzeen eta artile laburren artean?

a) Artile luzeak finagoak izaten dira; artile laburrak, bestalde, lodiagoak.
b) Artile luzeak lodiagoak izaten dira; artile laburrak, bestalde, finagoak.
c) Artile luzeek edo kardek beti pisatzen dute artile-hari izeneko artile laburrek baino gutxiago.
d) Ez dago alderik artile luzeen eta artile laburren artean.

148.- Adierazpen hauetatik, zein EZ da zuzena?

a) Artile-zuntzek feltro-izaera dute; horri esker, baldintza jakin batzuetan krokatu egin daitezke, eta feltroak osa ditzakete.
b) Artile-zuntzak keratinaz osatuta daude; keratina sufre asko duen proteina bat da.
c) Artile-zuntzak konikoak dira.
d) Artile-zuntzek ez dute elastikotasunik, eta, uzkurtu ondoren, ez dute beren jatorrizko forma berreskuratzen.



149.- Artile-proteina aminoazidoz osatuta dago. Aminoazido hauetatik, zein da artilean gehien dagoena?

a) Leuzina.
b) Kristina.
c) Azido glutamikoa.
d) Serina.

150.- Zein da naturak sortzen duen filamentu etengabe bakarra?

a) Artilea.
b) Zeta.
c) Kotoia.
d) Lihoa, landare-zuntz behinena.

151.- Baieztapen hauetatik, adierazi zein EZ den zuzena:

a) Zeta-zuntza da zuntz natural guztien artetik erresistenteena.
b) Zeta gordina zuria, horia edo berdexka izan daiteke.
c) Zeta beroaren eta elektrizitatearen eroale ona da.
d) Zeta-zuntza erresistentea da kloroarekiko.

152.- Prozesu hauetatik, zein EZ dira beharrezkoak azala larru bihurtzeko?

a) Mazeratzea, egokitzea eta karea kentzea.
b) Biguntzea, zurratzea eta ilajea luzatzea.
c) Mazeratzea, ileak kentzea eta biguntzea.
d) Ontzea, zurratzea eta garreztatzea.

153.- Zein da kotoi-zuntzen eginkizun nagusia?

a) Hazi-ileak dira, zelula epidermiko bakar bat luzatzearen ondorioz sortuak.
b) Elkarren artean lotutako zelula askoz osatutako zuntzak dira.
c) Zeharka hazten dira luzera handiena lortu arte.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

154.- Adierazi aukera hauetatik zeintzuk EZ diren hazietatik datozen zuntzak:

a) Prezio altuko zuntzak.
b) Garbitzean uzkurtu eta tindua galtzeko joera duten zuntzak.
c) Izerdia xurgatzeko gaitasun handia duten zuntzak.
d) 25 eta 40 mikra arteko diametroa duten zuntzak.



155.- Liho-landareari eta haren zuntzari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Liho-landarea batez ere klima beroetan hazten da, eta bere zuntzak hazietatik datoz.
b) Lihoaren zurtoinen luzera 0,5 metro eta metro 1 artekoa da, lore urdinak ditu, eta bere zuntzak zurtoinetik datoz.
c) Liho-landareak lore arrosak ditu, eta bere zuntzak hostoetatik datoz.
d) Liho-landarea batez ere klima hotzetan hazten da, eta bere zuntzak sustraietatik datoz.

156.- Adierazi honako baieztapenetatik zein EZ den zuzena:

a) Liho-zuntza ez da kotoia bezain erresistentea, baina elastikoagoa eta malguagoa da.
b) Liho-zuntza ez da kotoia bezain erresistentzia azidoen ekintzarekiko, baina erresistenteagoa da lixiben aurrean.
c) Liho-zuntza ez da kotoia bezain elastikoa.
d) Liho-zuntzaren luzera 10-40 mm artekoa da.

157.- Adierazi zein EZ den erantzun zuzena:

a) Liberretik datozen zuntzak dira: lihoa, jutea eta ramioa.
b) Jute-zuntzaren ekoizle nagusiak Pakistan eta India dira.
c) Kalamua abarketen zola egiteko erabiltzen da.
d) Jutea da Txinan landutako zuntz sintetiko guztietatik merkeena.

158.- Amiantoari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Amiantoa beroaren eta elektrizitatearen eroale ona da.
b) Amiantoa erregaitza da, azidoekiko erresistentea da, eta galdaren estalkietan erabiltzen da.
c) Amiantoak zuntz-egitura duen harriaren forma dauka, eta aise zatitzen da harizpi luze eta oso zurrunetan.
d) Amiantoaren osagai nagusia sodio silikato hidratatuak dira.

159.- Adierazi zein den erantzun zuzena.

a) Zelulosa-zuntzek rayonen izen generikoa dute.
b) Zelulosa-zuntzak ez dira erraz tindatzen.
c) Zelulosa-zuntzek erresistentzia gehiago dute bustita daudenean.
d) Zelulosa-zuntzek erresistentzia galtzen dute lehortuta daudenean.

160.- Zelan lortzen da rayon azetatoa, eta zeintzuk dira bere ezaugarrietako batzuk?

a) Petroliotik lortzen da, eta zurruna eta lakarra da.
b) Kotoi-hondarrak zelulosa-azetato bihurtuta lortzen da, eta ukitu edo ikusteko atsegina da.

c) Zuzenean lortzen da zeta naturaletik, beroarekiko erresistenteak diren ehunetan soilik erabiltzen da, eta lakarra da.
d) Lihotik sortzen da, eta erregaitza eta opakua da.

161.- Ezaugarri hauetatik, zein da binilo-zuntzarena?

a) Konposatu naturaletatik lortzen da, eta beroarekin aise hartzen du su.
b) Tenperatura ez oso altuetan bigundu eta uzkurtu egiten da, ez du surik hartzen, tindatu egin daiteke, eta arrantza-sareetan erabiltzen da.
c) Ezin da tindatu, eta oso erreaktiboa da uraren eta argiaren aurrean.
d) Artile-zuntz bat da; polimero mineralekin nahasten da produktu erresistenteak lortzeko.

162.- Zuntz polietilenikoei buruzko baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena?

a) Etilenoa duten hidrokarburoak polimerizatzean lortzen dira, eta tapiz eta moketetan erabiltzen dira.
b) Animalia-proteinetatik lortzen dira, eta ehun delikatuetan erabiltzen dira.
c) Urraduraren aurrean oso erresistenteak dira.
d) Marka ezagunenak Sará, Rilsán eta Velón dira.

163.- Poliuretano-zuntzei buruzko baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena?

a) Uretanotik lortzen dira, eta elastikotasun handia dute.
b) Batez ere, kortse, bainujantzi eta kirol-arropetan erabiltzen dira.
c) Zurrunak dira, eta ez dute elastikotasunik.
d) Marka ezagunenak Lycra, Ekaswing eta Vyrene dira.

164.- Zein da tafeta loturaren edo lotura planoaren ezaugarri berezia?

a) Bi aldeetan itxura berdina dauka, sinpleena eta zaharrena da, eta irazkiaren eta bilbearen arteko gurutzaketa oso sendoa da.
b) Diseinua alde batetik bakarrik ikus daiteke, eta lotura nahiko berria da.
c) Zigzag itxura dauka, eta irazkiaren eta bilbearen arteko gurutzaketa oso ahula da.
d) Lotura guztien artetik zailena da, eta apaintzeko ehunetan erabiltzen da.

165.- Kontuan hartuta lisatzeko faseak eta lisatzearen helburua, zeintzuk dira lisatzearen bi xede nagusiak?

a) Zuntzak luzatu eta ehuna desinfektatzea.
b) Ehunak lehortu eta satinatzea.
c) Orbanak ezabatu eta arropa tolestea.
d) Ehuna busti eta elastikotasuna handitzea.

166.- Zer lortu nahi da arrabol periferikoei zilindro zentralari baino abiadura apur bat gehiago emanda?

a) Arropa garraio-zintetan harrapatuta geratzea saihestu nahi da.
b) Lurrunak erauzgailura joan daitezen erraztu nahi da.
c) Arropa zilindro zentralean arrastatu nahi da distira edo satinatua lortzeko.
d) Presio altuko lurrun-kontsumoa murriztu nahi da.

167.- Zein da kubeta-kalandraren sistemaren oinarrizko aldea zilindro zentrala eta arrabol periferikoak dituen kalandra-sistemarekin alderatuta, beroari erreparatuz gero?

a) Kubeta-kalandraren sisteman, beroa amaierarik gabeko olana eroaleak arroparen kontra igurztean sortzen da.
b) Kubeta-kalandraren sisteman, zilindro zentrala da erradiazio ionikoaren iturri bakarra.
c) Kubeta-kalandraren sisteman, erradiazio termikoa kubetaren bidez sortzen da (ez zilindroaren bidez).
d) Kubeta-kalandraren sisteman, beroa soilik dator sorgailu eolikoek injektatutako aire berotik.

168.- Zein egoera zehatzetan hasten da arropa erretzeko prozesua kalandran?

a) Soilik baldin eta ehuna guztiz lehor badago, eta berogailu-azalerekiko kontaktua denboran luzatzen bada.
b) Arroparen hondar-hezetasuna % 50 baino altuagoa bada.
c) Kubetaren azalera 100ºC-tik beherakoa bada.
d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

169.- Zer gertatzen da arropan, garbitzeko prozesuan azidifikazio goiztiar bat badago urberritze eza konpentsatzeko?

a) Hainbat aldiz garbitu ondoren, zuritasuna handitu egiten da.
b) Hainbat aldiz garbitu ondoren, zuritasuna txikitu egiten da.
c) Urberritzearen urak hobeto eramaten du emultsionatutako zikinkeria hustubidera.
d) Neutralizatzaileen erabilerak konpentsatu egiten du urberritzea, eta geroz eta zuriagoa bihurtzen du arropa.

170.- Zelan ezabatzen da, batez ere, arroparen hondar-hezetasuna kalandran?

a) Lokalaren atmosferara soilik lurruntzen da, modu naturalean.
b) Zati bat lurrun forman ateratzen da atmosferara, baina gehiena xurgatu egiten da zilindroaren ardatz nagusira konektatutako erauzgailu baten bidez.
c) Zilindroak hezetasun guztia xurgatzen du, eta ur-biltegiaren kanpoko zilindrora konektatutako kubeta batetik ateratzen du.
d) Aire konprimatuko sistema bat erabiltzen da, eta sistema horrek lurruna kanporantz bultzatzen du.



171.- Zein unitatetan neurtzen da kalandra batean erauzitako lurrun kopurua?

a) Ordu eta metro lineal bakoitzeko lurrun kg-tan.
b) Segundoko hezetasun erlatiboko Celsius gradutan.
c) Erauzgailu nagusiaren minutuko biratan.
d) Zilindroko azalera libreko m^2-ko eta orduko aire m^3-tan.

172.- Kubetaren gaineko zilindroaren presioan, gutxi gorabehera zein presiotan sortzen da hondar-hezetasunaren beherakada nabarmenena?

a) 0,1 kg/cm^2 inguruko presioa dagoenean.
b) 0,01 kg/cm^2 inguruko presioa dagoenean.
c) 0,4 kg/cm^2 inguruko presioa dagoenean.
d) 1,0 kg/cm^2 baino presio altuagoa dagoenean.

173.- Zein presiotik aurrera ez da lortzen hondar-hezetasuna ezabatzeko prozesua hobetzea?

a) 0,4 l/cm^2-tik aurrera.
b) 0,05 kg/m^2-tik aurrera.
c) 0,4 kg/cm^2-tik aurrera.
d) 0,8 km^2/cm^2-tik aurrera.

174.- Nola eragiten dio hondar-hezetasunak ehuna mugitzeko erresistentziari kalandran?

a) Hezetasuna zenbat eta txikiagoa, handiagoa da irristatzeko erresistentzia.
b) Hezetasuna zenbat eta handiagoa, handiagoa da irristatzeko erresistentzia.
c) Irrist egiteak ez du zerikusirik ehunaren hezetasun-mailarekin.
d) Irristatzeko erresistentzia soilik aldatzen da erabilitako muletoi motaren arabera.

175.- Zer izan daiteke gomendagarria baldin eta zentrifugazio bidez ez bada lortzen hondar-hezetasunaren mailarik onena?

a) Kalandraren zentrifugazioaren abiadura handitzea, gehiegizko hezetasuna konpentsatzeko.
b) Arropa bi aldiz lisatzea kubeta berean.
c) Arropa aurretik lehortzea girogailu birakarietan.
d) Zilindroak kubetaren gainean egiten duen presioa murriztea, orbanak saihesteko.

176.- Maiz agertzen diren akats hauetatik, zein azaltzen da lisatzeko prozesuan?

a) Argizarizko eta urezko orbanak.
b) Kiribildutako arropak.
c) Bihurrikatutako estalkiak.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

177.- Kalandretan, zein faktorek eragiten dute oihala akatsik gabe mugitzea eta lisatzean lortu nahi den helburua lortzea?

a) Lisatu beharreko ehun motak eta bere hondar-hezetasunak.
b) Kubetaren azaleraren leuntasun-mailak eta zilindroak kubetaren kontra egiten duen presioaren batasunak.
c) Azaleraren egiturak eta estalkien egoerak.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

178.- Zer da Osakidetzako Prebentzio Zerbitzua?

a) Langileen administrazio-kudeaketaz soilik arduratzen den organismo bat.
b) Profesional talde bat da, eta langileen osasuna bermatzeko lan-baldintza seguruak bultzatzea du helburu.
c) Soilik kanpoko osasun-prestakuntzan aritzen den sail bat.
d) Ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeaz arduratzen den zerbitzu bat.

179.- Zeintzuk dira Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuaren jarduera-eremu nagusiak?

a) Langileen osasuna zaintzea, horren barruan sartuta osasun-azterketak eta txertaketa-programak.
b) Lan-arriskuen eta gaixotasun profesionalen ikerkuntza, asistentzia eta kontrola.
c) Emergentziako eta ebakuazioko planak ezartzea, eta langileei prestakuntza eta informazioa ematea prebentzio-gaietan.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

180.- Zer da lan-arriskua?

a) Lanean jasandako kalte larri bat.
b) Lan-ingurutik kanpo hartutako gaixotasun bat.
c) Langile bati lanetik eratorritako kalteren bat gertatzeko posibilitatea.
d) Lantokira bidean gertatutako istripu bat.

181.- Zer da lan-inguruko istripu biologiko bat?

a) Ikerketak egiteko, agente biologikoen esposiziopean egotea modu boluntarioan.
b) Lan-jarduerak garatu bitartean airearen edo odolaren bidez transmititutako eragile biologikoekiko esposizio akzidentala.
c) Soilik airearen bidez transmititutako infekzioak.
d) Lan-ingurutik kanpo hartutako edozein gaixotasun infekzioso.

182.- Zer egin behar du langileak *in-itinere* istripu bat geratuz gero?

a) Berehala joan etxera atseden hartzera.
b) Sintomak arintzeko medikamentuak hartu bere kabuz.

c) Goi-hurrengo arduradunari eta Prebentzioko Oinarrizko Zerbitzuari eman horren berri ahalik azkarren.
d) Hurrengo egunera arte itxaron bilakaera baloratzeko, eta dagokionari jakinarazi.

183.- Zauri bat eragin duen istripu biologikoan, nola garbitu behar da erasandako gunea?

a) Zauria alkoholarekin igurtzi behar da.
b) Ur lasterraren azpian 2-3 minututan eduki behar da, igurtzi gabe.
c) Zauria berehala estali behar da gasa batekin.
d) Zauria produktu desinfektatzaileekin garbitu behar da.

184.- Aukera hauetatik, zein EZ da erradiazio ez-ionizatzailea?

a) X izpiak eta Gamma izpiak.
b) Elektromagnetikoa eta mikrouhinak.
c) Infragorria eta laserra.
d) Irrati-frekuentzia eta ultramorea.

185. Zer egin behar da instalazio elektriko batean hutsune bat antzematen bada?

a) Norberak konpondu.
b) Larria ez bada, kasurik ez egin.
c) Arduradunari jakinarazi.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

186.- Jarduera hauetako zein da zuzena laneko ekipamenduak erabiltzean?

a) Ez baliogabetu babesgailurik, eta. arrisku-egoerarik detektatuz gero, horren berri eman lehenbailehen.
b) Laneko ekipamenduren batean matxuraren bat antzemanez gero, konpondu egingo da. Horretarako, norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira.
c) Ez egin kasurik norbera babesteko ekipamenduen seinaleei.
d) Lanean jarraitu arrisku-egoerak antzeman arren, atzerapenik egon ez dadin.

187.- Neke muskularra saihesteko, honako gomendioak jarraitzea aholkatzen da:

a) Beti jarrera berean egon.
b) Jarrera maiz aldatu.
c) Beti eserita egin lan.
d) Gorputz-jarrera sarritan aldatu, tentsioa arintzeko eta zirkulazioa gutxiagotzeko.

188.- Paziente bat mugitzean, zein da jarrera egokia?

a) Lepoa zurrun eduki eta hankak elkartuta.
b) Hankak guztiz luzatu.



c) Bizkarra zuzen eduki eta hankak tolestu.
d) Enborra biratu, oinak mugitu gabe.

189.- Arrisku ergonomikoak saihesteko, non jarri behar dira begiak ordenagailuaren pantailarekiko?

a) Pantailaren erdigunearen parean.
b) Beheko ertzaren azpitik.
c) Pantailaren goiko ertzaren parean.
d) Berdin dio; garrantzitsuena ondo ikustea eta eroso egotea da.

190.- Nortzuk sar daitezke erradiazio ionizatzailea duten aldeetara?

a) Langileak eta osasun-langileak bakarrik.
b) Baimena duten pertsonak bakarrik.
c) Informazioa jaso duen edozein langile.
d) Pazienteak eta senideak.

191.- Erradiazio ionizatzailearekin lan egin eta berunezko mantala janztean, non ipini behar da dosimetroa?

a) Berunezko mantalaren gainean.
b) Prakaren atzeko poltsikoan.
c) Berunezko mantalaren azpian.
d) Eskuan eramatea komeni da, erradiazioa errazago neurtzeko.

192.- Erradiazio ez-ionizatzaileari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Erradiazio ez-ionizatzaileak erredurak eragin ditzake begietan eta larruazalean. Horregatik, komeni da babesteko betaurrekoak jartzea, hala behar denean, eta ez jartzea erradiazioaren bidean.
b) Erradiazio infragorriak eta mikrouhinak bero lokala soilik sor dezakete; ez dute inoiz eragiten begietan. Horregatik, ez dago zertan begiak babesteko gailurik erabili.
c) Frekuentzia baxuko erradiazio elektromagnetikoak guztiz kaltegabeak dira. Horregatik, lan-inguruetan ez dago zertan prebentzio-neurririk hartu.
d) a), b) eta c) zuzenak dira.

193.- Profesional sanitarioek hainbat agente biologikoren helmenean lan egiten dute, arrisku biologikoa pairatuz. Adierazi hurrengoetako zein den agente horietako bat:

a) Asma.
b) Hepatitisa.
c) Diabetesa.
d) Hipertentsioa.

194.- Produktu kimikoak manipulatzean, zer dago debekatuta?

a) Eskularruak jartzea.
b) Etiketak irakurtzea.
c) Produktua usaindu edo probatzea.
d) Ontziei etiketak jartzea.

195.- Produktu kimikoak erabiltzeko arau orokorrei buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) Produktu kimiko bat manipulatu baino lehen, aski da ohiko erabilera buruz ikastea; ez dago zertan etiketa irakurri edo segurtasun-datuen fitxa kontsultatu.
b) Ez jan, ez edan, ez usaindu, ez probatu produktu kimikorik; norbera babesteko ekipamendu egokiak erabili, eta, beharrezkoa denean, baita segurtasun-kanpaiak ere.
c) Identifikatu gabe dauden produktu kimikoak usaindu etiketa egokia jartzeko.
d) Produktu kimiko hegazkorren ontziak zabalik egon ahal dira inguru aireztatuetan manipulatzen badira.

196.- Egoera hauetatik, zein dagokio "intzidentearen" definizioari?

a) Langileari lesio arinak eragiten dizkion gertakaria, bajarik sortu gabe.
b) Lantokirako ohiko bidean gertatutako istripu bat.
c) Langileei lesiorik eragin ez arren, materialei edo ingurumenari kalteak eragin diezazkien gertakari bat.
d) Langileari bere ohiko lana egitea eragozten dion istripu bat.

197.- Istripu edo intzidentzia bat jakinarazteko barne-parteak zein helburu nagusi dauka?

a) Asistentzia medikoa eskatzea langilea babesteko, eta enpresaren lan-osasuneko barne-protokoloa jarraitzea.
b) Langilearen hutsunea justifikatzea berehalako arduradunaren aurrean, langilea ez dagoen bitartean zereginak antolatzeko.
c) Laneko baja jakinaraztea langileen sailari, eta dagokion dokumentazio medikoa igortzea, nomina zuzen kudeatzeko.
d) Istripua deklaratzea, ondoren ikertu ahal izateko, betiere legeak horrela onartuta dagoenean.

198.- Istripu biologiko baten ostean, noiz hasi behar da profilaxi antierretrobirala?

a) Beti, istripu mota edozein izanda ere.
b) Soilik langileak hala eskatzen duenean.
c) Istripua izan duen langileari odola atera eta gero.
d) Istripuaren ezaugarrien arabera transmisio-arriskua handia bada.

199.- **Zer da konbustioa?**

a) Murrizketako erreakzio kimiko bat, beroa xurgatzen duena.
b) Sustantzien nahaste bat, energiarik sortzen ez duena.
c) Oso oxidazio biziko erreakzio kimikoa, bero kantitate handia askatzen duena.
d) Egoera aldatzeko prozesu fisiko bat, produktu kimikorik sortzen ez duena.

200.- **Zein da sua itzaltzeko eragilerik seguruena eta ohikoena?**

a) Ura.
b) Karbono dioxidoa.
c) Hauts polibalentea.
d) Hauts kimiko lehorra.